



"PRINCIPE E VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE


DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea — Pamplona, Marzo 1969 — Epaila, Iruña — 37 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



UDABERRIA

Izen polita du udaberriak, maitale guzien zeru urdina bezala. Izen gazte odol berri eta bizi nahia. Asiera...

Baño, nola adierazi gauzak?

Ametsgarri da ama gaztearen haur jayo berria; pozgarri ereilearen begitan uzta oria; zoragarri biligarroaren oihaneko bizia. Hori ote da udaberria?

Ez. Haurra baño lehenago zen asmoa. Uztak aspaldi zuen ereitea. Biligarro kafiko lasto bakoitzak ba luke bere biziko poema ixila. Asiera...

Biziaren garra sakona da, otsik gabe, barrutik heldu da, belar zahar arteko lenbiziko pitxiak bezala. Ezer artzekorik gabe ematea: arnas berria. Uzta bera baño ederrago, muga gabeko pozaren amets zabala.

Udaberria berez, ba da ta ez da; gehiago da atzean uzten duen neguaren beltza. Egun luze, naiz eguzki motza; bizitzeko asmo gorria axeri zaharrak; garizima ondoan alleluya... Udaberria zahar berritze bat da. Asmoa. Ametsa. Asiera...

Ezin ezkondu zahartu zen etxealde oneko semearen ezteiak, baserriko udaberria esan nahi du. Herriak ere beren negu eta udaberriak ba dituzte. Gizonen hutsak bezala.

Euskera nuen gogoan. *Betiko kezka, gure izkuntzak haurren ikasketa zuen eskas; ezin sartu eskoletan euskera. Bat batean, mila urte askoren negu ondoko udaberria bezala, argi izpi bat. Villar Palasi ministro jaunak eta "Liburu txuriak" diotenez, emendik aurrera ez erdera bakarrik; gañera bere izkuntza eta beste irugarren bat ikasi beharko dituzte haurrak eskolan. Gu baño herri aurreratuagoak egiten dutena.*


Denbora berean Frantzi aldetik beste berri aundi bat: Azparne'ko eskoletan bi mintzaireren sayoa. Egunean ordu bat eskoletan euskeraz; noiz izan du berri pozgarriagorik gure euskera zaharrak?

Aize bolara baten ego txuriak argi-senti bat ideki du Euskalherrian. Zahartu ondoko Udaberria, euskeraren alorreko pitxi urdinak. Ametsak. Asiera...

Izen polita du, bai, udaberriak. Eta politago ezin biziz zegon etzezaharrean, haurren udaberri gaztea balin ba da. Jainkoak lenbailen argi beza. Amen. Alleluya.

J. M. SATRUSTEGUI

X A B I E R



Ille hontan, Epailan (Martxuan) Xabierreko Frantzisko Sainduari eskeiñitako «Grazia'ko Bederatziurrena» dela-ta, Xabierreko Gazteluan jendeketa, multzoka, izugarri biltzen da bere inguruan.

Gure Zaindari den Frantzisko Sainduak begiratu gaitzala eta bide batez berea zuen euskera gozoa zaindu eta gorde dezaigula. Agur Xabier!

ALFABETATZE IKASKETAK AURRERA

Ioan den igande batez Donostian bildu zen EUSKALZAINDIA-ren babesean, giputz eta bizkaialdeko herri zenbaitetik etorritako gazte multzo bat. Jaieguneko jostakeriak erdeinatuz eta bazter utzirik, euskeraren aldeko lan zerbait egin naiez, Markina eta Gernika bezain urruneko tokietatik Donostiara etortzea, ikasgela otz batean biltzeko, ezta auntzaren gauerdiko eztula.

Nafarroako euskal herri batzuetako gaztek, halako izpiritua balute, beste txori batek joko liguke, erraten den bezala; eta Nafarroako euskera illunduak kukurruko egiteko moduan paratuko zela gaude.

Baina aitzin-prediku luze hau utzirik, zer dea ALFABETATZE bitxikeria hori?

Lehen ere mintzatu gara hortaz hemen, eta norbait oroitu da, dudarik gabe, hitz horrek euskal gazteeri euskaraz irakurtzera eta leitzera irakastea, erran nai duela.

Alabainan, Nafarroako herri horietan euskara bada, eta euskaraz irakurtzeko eta leitzeko paperak ere bai, ausarki; baina gauzatxo bat falta du gazteriak; bihotza. Iruñeko hirulau milla euskaldunik geienek bezala; euskaldun agertzeko kemena. Ez ote dute bada, gaztek apezari eskatu Larraungo herrixka euskaldun batean, euskarazko predikuak utz ditzala?

Eta bestalde, zer makurkeriak gertatzen ari dira SAKANA-ko herrixka bateko aur euskaldunen Eskolategian? Baina, gu ixiltzea obe, mintzatu behar litakena ixilik badago.

Utz ditzagun, alabainan, zorigaitz horiek, eta goazen berriz ALFABETATZE gazte multzo harengana. Ogei bat gazte adoretzu, neskatxa eta mutiko, bildu ziran, gero bako txak bere herrian nola joka jakiteko, hango gazteeri euskaraz irakurtzen irakasteko.

Euskalzaindiaren izenean zagonak agur egin zien gazte horieri, agur bero bat, esanez ALFABETATZE hori gure euskal pizkunde xume hontan, egiteko premiatsuen dela, ikastolakoarekin batean.

Ez bide zuen horrekin nai, euska-

ra idatziaren ondorioz gure mintzaira piztuko dela, esan; mendez mende izkiriaturik izan gabe bizitu baita, eta egun bertan euskara idatzia baiño premiatsuago da euskara mintzatua; hau ezdugu iñoiz ere gogetatik galdu behar.

Bainan bizitza modernoan, Eskolategian, ikastolatan sartu beharra dela euskera, Ministroak berak onartua da; hortaz gainera gazteeri ere, aundiagoeri, irakurtzera irakutsi behar da, euskal liburuak imprimatuko ba dira. Irakurlerik gabe ezta liburu izkiriaturik. Euskalzaindiaren xedea oraikotz, irakurleak egitea da, euskara idatziaren batasuna bazter utzi gabe.

Batasun horren aldera abiatzeko berriz, gibelerat behiratu behar da, ez aurrera; idazlari zaharrak autatu behar dirala, alegia, maiz esana den bezala, eta ez modernoak, giputz euskalkian bereziki; eta berdin nafar-lapurtarrean eta bestetan ere; askoz batasun alderago daudelako AXULAR, **Ioanes d'Etcheberri** edo **Iturriaga** eta Gregorio ARRUE, oraiko idazlariak baiño.


Irakurtzera irakasteko liburuxka egoki bat badugu, **Echenagusia** argitaratu bi Antologia, giputz eta bizkaiki prosistenak; hor autatu behar dira autore zaharren artean, errezenak, garbienak, herrikoienak, denak ezpaitira berdin:

Gaia motela bada ezto axolik; gaiari ez baina izkuntza garbia ikasteko ari gara.

Badakigu herriren batean gazte batzuk ALFABETATZE multzo bat abiatzekotan daudela; agian ba, eta behar luketen laguntza etzaiela faltatuko ere badakigu.

Multzo horietan edozein kokatzen ahal da, euskera maite duen ber; ezen Pompeu FABRA catalan jakintsu, eta Iztegia haundia eta bere izkuntza bateratu zuenak zion bezala: «el pueblo está convencido siempre, de, que defender la lengua y la cultura (catalanas) es compatible con cualquier posición política».

A. APAT ETCHEBARNE





Hacia el vasco común unificado ⁽¹⁾

Por Fr. LUIS VILLASANTE

(Tomado de la Revista
«ARANZAZU»)

Las sesiones de la Academia Vasca últimamente celebradas en Aranzazu, han tenido —como era de esperar— su repercusión y han dado origen a comentarios diversos y encontrados. Pero las polémicas y debates se han centrado casi siempre en torno a un punto concreto —el empleo o no empleo de la «h» en la ortografía vasca—, dando a veces la impresión de que se trata de una cuestión bizantina, intrascendente y casi ridícula. ¿No tiene problemas más serios el vascuence —se preguntan los observadores un poco alejados— para que pierdan el tiempo en esas nimiedades? No se han percatado los que así hablan de que el pleito de la «h» forma parte de una empresa más vasta, de un quehacer muy serio, del problema quizá más serio que tiene planteado la Academia y que más de cerca afecta a la misma vida y supervivencia de la lengua vasca. Este problema es la constitución del vasco literario común y unificado.

Hasta ahora existen dialectos literarios con más o menos vida o pujanza: el vizcaíno, el guipuzcoano, el navarro-labortano, suletino, etc. Ni la ortografía, ni el vocabulario, ni la conjugación ni la sintaxis es enteramente uniforme entre estos dialectos, sino que se amolda a tradiciones y cánones propios. Todo esto hace que la producción literaria en euskera presente un aspecto un tanto abigarrado y anárquico, que repercute desfavorablemente sobre la misma lengua.

Por de pronto, crea problemas editoriales insolubles. En efecto, el tener que multiplicar las ediciones y traducciones dentro de una misma lengua por atender a minucias y diferencias que se cotizan solo dentro de un área muy reducida, hace que dichas ediciones sean económicamente ruinosas e impracticables.

Problema de prestigio. Ante el público general una lengua que en lo literario no está sólidamente unificada, es irremediablemente considerada como un «patois», un «dialecto» sin dignidad ni nobleza. Todos hemos oído muchas veces de boca del vulgo, frases como ésta o parecidas: «El vasco no es un idioma, sino un dialecto». Aunque no sepan expresar con exactitud su pensamiento, los que tal dicen enuncian algo que en el fondo es muy exacto. Esto es lo que ellos, poco más o menos, quieren decir: El vasco es un idioma que no ha conseguido crear su lengua literaria; por tanto, no pasa de ser un «patois», un «dialecto», en el cual no se escribe, o se escribe como a cada cual le parece, porque no hay reglas y todo está al aire...

Problema de enseñanza. Hoy todos estamos convencidos de que la salvación del vascuence está en la escuela. Pero ¿cómo introducir en la escuela un idioma que no tiene su lengua literaria unificada y normalizada? El maestro necesita ante todo de unidad. Con una lengua que tiene tantos cabos sueltos su labor se hace sumamente ingrata e ineficaz.

El problema de la lengua literaria

Bastan —creo yo— estas sencillas consideraciones para echar de ver la gravedad y urgencia del problema. Hace muchos años que lo dijo Kurtz: la Academia no tiene problema más grave que éste. Para trabajar por su solución fue creada, y traicionaría a su misión si no se preocupa de él. Si el euskera no consigue crear la lengua literaria unificada y normalizada, no pasará de ser un «patois» (un «dialecto»), sin prestigio, y perecerá. Cualquiera que observa un poco la vida social sabe qué influjo ejerce el prestigio sobre las multitudes.

La Academia no ha dejado de

preocuparse del problema desde su fundación, ahora hace cincuenta años. Pero la forja de una lengua literaria unificada no se repentina ni improvisa, ni depende sólo de la Academia, sino de un conjunto de circunstancias de índole diversa. Uno de los primeros pasos de la Academia fue decidir la unificación de la ortografía. No es cierto —como se ha insinuado—, que la Academia desautorizó entonces el empleo de la «h». No lo hizo ni lo podía hacer, por cuanto hay vascos que pronuncian esta letra (en forma de aspiración), y en su tradición literaria su empleo está hondamente arraigado. El que quiera comprobar la verdad de este aserto, no tiene más que consultar la revista de la Academia (véase «Euskera», 1920, p. 64).

Desde entonces ha llovido bastante y el problema de la lengua literaria ha estado siempre presente y flotando en el ambiente. Ha sido objeto de diversos estudios, proyectos, dictámenes, etc. Pero como decíamos, estas cosas no se repentinan. Su éxito depende de un conjunto de circunstancias que tal vez hasta ahora no se daban o sólo se daban en muy débil medida.

Hasta la fecha la producción literaria ha estado, pues, fraccionada en dialectos. Hacer el salto, adoptando un tipo de vasco que no sea ya dialectal sino vasco a secas, este es el problema. Problema delicado que no deja de envolver dificultades, que origina susceptibilidades, temores y recelos.

Cambio de circunstancias

Pero tal vez hoy se cuenta con unos medios y un ambiente que hace sólo unos años no existía. Facilidad de comunicaciones, técnicas de difusión, mejor conocimiento de las fuentes de la lengua y de la historia de la misma, y una nueva generación que por encima de lo local y provincial, se encara

decididamente con el problema y pide su solución urgente. Como decía Michelena: Yo no propondría estas cosas si no viera una fuerza capaz de plasmarlas en realidad; pero hoy en día creo que esa fuerza existe.

El milagro que las lenguas literarias realizan

Quien vaya pulsando la opinión o manera de sentir del pueblo sencillo sobre el vasco comparado con el castellano, habrá escuchado infinidad de veces la misma constatación: El vasco —dicen a poco que se les escuche— cambia de un lugar a otro, es diferente de una provincia a otra y casi de un pueblo a otro; en cambio, el castellano es idéntico en todas partes. Esta observación no deja de ser ingenua y superficial, pues si se ahonda un poco, pronto se echa de ver que también el castellano está fragmentado. Toda lengua está fragmentada, dividida en dialectos y variantes. El vasco en este punto no es ninguna excepción. Lo que ocurre es que el castellano posee una lengua literaria sólidamente unificada, usada por todos como instrumento para los menesteres literarios, enseñada en las escuelas, difundida por potentes medios de difusión. Esta lengua literaria uniforme se sobrepone de tal modo en la atención y en la conciencia de las gentes, que las diferencias reales del idioma hablado pasan desapercibidas, hasta el punto de creerlas inexistentes. En cambio, cuando no existe este instrumento de civilización que es la lengua literaria, el espíritu se encuentra frente a frente, solo y desarmado ante la jungla enmarañada de una ingente cantidad de variantes y diferencias que deprimen. Apenas hay, pues, tarea que más interese al vasco que la constitución de la lengua literaria, no a escala dialectal o provincial, sino para toda la extensión del euskera.

(Continuará)



ELIZAREN
ITZA

MEZUA NOLA, ENTZUTEA ALA

Otsail samin bat zan. Mendi ta zelai, txuri-txuri; elurrekin estalirik. Danok, aski estu: ta artzañak, larri-larri; bildotsak elduki, ardiek indar-bear, belar izpirik ere ez ikusten iñon. Ipar aize otza egunez: goian izarrak dirdir gauaz, eguneko orma biaramonekoak aundituz.

Egunero bere agerraldixka egiten zakun eguzkiak, argi pixka bat saetska ta urrundik bidaliz, berotasun guti ta itzal luzeakin.

Otzak ez il naiean, larre-beor ta pottokak, iabeen lokarrietaritzen ziren, ta ez ain bortxaka ere, epeldegian sartzeko.

Beiak, orro; astoek, irrintzi; ardiek, ianba; txerriek, kurrink. Alde guzietatik eskea. Soñu mingarri arekin, naiko dantza iabe gizajoe!

Otz latz ta bortitz aren luzearen luzeaz asperturik, ta bere eliztar maite nekazari ta artzain prestu aietaz urrikalduta, erretor iaunak igandeko Mezan, Aitagurea astean, erratan dabe: «Danok batean, Jesukristok Berak erakutsitako otoitz eder au, gure aberen orro-irrintzi-ianbata kurrinkakin batu dezagun, zin-zinez zeruko Aitari bialtzeko, gutaz ta guretz urrikaldu dedin, ta aize ego gozo batekin orma ta elurrak urrundu ditzan».

Denen gogoak erretor iaunarenakin elkartu ziran, ta orduan arte iñoiz entzun etzen indarreko Aitagurea igo zan kristau eken biotzetik, zuzen-zuzen, indartsu-indartsu, sinismendun-sinismendun, zerurano, laungoikoaren urrikaltasun ta indar negurrigabeen beren ueste osoa iarriz.

«Iaungoikoari eskerrak!» zioten denek. Aitagurearen indarrez, edo ala bear-ta, atsalde erdiko, bar-bar-bar egora: iaixurak nonai: erreketan beiti ura ausarki: gero ta berratuago araudia. Biaramuneko, belai ta larre, garbi aberentzat: xixtu ta kantut eder, gizonen agotatik.

Esker ona makurtzea, zenbait aldiz erraz izaten da. Emen ere makurtu zan, eletsu batzuen erruz! «Gure erretor iauna zein ona dan! Auniz badezake! Emengo otzak ta kezak nola aizketu ikustea aski!». Eta erretor iaunaren ontasuna ta albidea agoz-ago zabalduz eta beren ueste guzia ortan finkatuz, ondoko igandetik bertatik, Jesukristorenakin batean apezaren Aitagurea bakar-bakarrik, erdi lotsatua bezela, parrokiko aldaretik zerura!

Urteak bere itzulia emanez bezala, kopeta idor ta atzaparretan zigor agertzen zaigu berriz ere otsail kokorra.

Orma ta elurra: berriz ere orma ta elurra, ipar aize zorrotzak: ta luze! lengoan bezenbat!

«Aitagure indartsu ura, noizko ote dauke gure erretor iaunak?» zioten denek.

Aski etsitu zutenean, Aitagurearen billa doaz apezarengana. Ta elizako leio barnetik geienkoenak ikusteko negurrian, agita luze baten goi-goian, oial txuri aundi bat iarri zuten, apezak otoitza erran bezein laister egorak balantzaten ote zuen ikusteko.

Erretor iaunak Jesukristorenakin batean erran zuen, bai, oioitza. Baña, gorputzez Jesukristoren ta apezaren inguru zaudenak, gogoz ta biotzez aga luzearen oial zurian zauden. Ta alako zama iasan bearrakin, oiala ibili ezin...

Zeruko Aitak lenbiziko mezua bereala entzun zuen noski, Jesukristok, apezak ta kristauak, denak bat eginin, zuzen bidali zutelako zerura. Bigarrean berriz, etzagon batasunik: zuzen bialtzetik ere ez: non daukagun egizko indarduna oharterik ere ez.

Guk nai duguna laungoikoak nai duenarekin batera iarri bear dugulakoa ere or dabil nonbait, kexadura ta larritasunakin geren buruak ta bertzenak ez ondaporrokatzeko. Bera da labe: Aren nerabe, gu.

IBARRONDO

GAZTETXO NAIZ

Ille aundi bat, azkanarruen antz; "patilla" luzeak, ta, ondo edo ez aian ondo zaitutako bizarra, kokotzatik bera. Ezpartziñak oñetako, nai euria ariki; ta galta lasai batzuek, azkeneko iru asteetan aldatu gabiak...

Onela elestutzen digute gaurko gaztediari. Ijitu antzekoak omen gerade. Ariñak. Buru gabekoak. Alperak. Gizakikoak. Biarko eguneko, itxaropen aulak adierazten duten oitit omen gerade, diotenaz. Egia ote au? Ezdakit. Ni baño jakintsuagoak itz egin dute, gauz oneri buruz. Ez naiz gaur beintzat, gai onekin burua austera etorria.

Badago beste zerbat, alper edo langille, beti geren artean euki leguna: neska-mutillen arteko "maitasuna" deritzaion ori.

Gazteak izanik, oraindik aurak, alaigarri izandu zaigu neskatillen bat. Edo, beste aldetik, mutillen bat ongarrri izandu zaio neskatxeren bateri. "Maitasuna" deitzen genion. ta etzen goiz-sen edo goiz-nai bat besterik. Lendabiziko ernaketa. Zer jakinen genduen ba, guk, zer zan maitasuna! Zer jakinen degul Aurak gerade oraindik ori dana jakitako.

Gazte bakoitzak milla edesti edo gertaketa otatik kontatzen aal ditu. Bañan, ta ezdakit zergaitik, iñorik ez-du nai izaten, beste munduko gauz bat izanen litzaken antz.

Gaur, ez zerbat berexia egin naiez, baizik orri aldi au pixko bat betetzeko edo, aipatu bear ditzuten neri gertatu zitzaidena. Ez dauka ezer. Edozein gaztek beste aibesbeste ta askoz geiago esateko gaia eu-

kiko du, benetan. Gure, aur ta gazte arteko urteetan gertatuak izaten dira, maiz aski. Aur kontuak, baño eben marra berexia utzitzen duten gertaketak.

Neskatxa bat alaigarri zitzaidan. Ez daukat ezezagatik esan bearrak bere izena; nungua zan, ezta. Bakarrik politen antza ematen niola. Begikoa... Alaigarri zitzaidela.

Alkar topatzen genduan maiz. Artan, agur berexi bat egiten nion, irriparrez. Nere artean siñestuta naukan, bera konturaten zala nere nai ta asmo aietaz. Gauz onek poz-tutzen zitzaidan, bete-betez. Bañan noiz-beinka ere galdetuzten nion nere buruari, al ote nintzan ezertxo ni arentzako.

Egia da beti beldurti izandu naitzela neskatxekin. Bañan, ziur, garai artan alegin guzti eginen nuela, arekin solastu bearez. Arentzat ongarrri izan bearez. Bazagon, baizik, beste illunpe galanta, traban: apaiz-gaia nintzan. Burutan euki bear nuen, neskan batekin izketan ikusten banauten, ez genula batzuen mingaña diñ egingo. Gañera, etxe-koak or. Noski, arrazoi bearrean etziran arkituko; ez nituen amabost urte besterik, artan.

Zenbat aldiz ez nuen zoritzartu apaiz sartu nintzan eguna. Ateratzen al nintzan, alegi, bañan beldurra naukan. Zenbat obeto —nere artean egiten nuen—, ez banitzen iñoiz apaiz-etxe artan sartu. Neurtu zein zall zitzaidan arrastan lokartzea beti gauz auok burutan. Ez naukan asmo txarrik gogoetan. Laguntasuna besterik ez nuen nai. Ba-

ñan, laguntasun berexia, neska arekin.

Ta beste urte bat sortu zan, Fezka artan. Orain bagenun azkatasun geiago, ta ez nintzan galtzeko gertu. Asi nintzan, onela, izketan arekin. Noiz-beinka zigarratsun bat errez, solas makurrak etziran urrutit arkitzen, nere buruari gezurrezko gizontasuna emanaz. Elizatik zenbat urrutiaro, aian obeto. Dana, aren aurrean gizonen itxura artzeko.

Ta betiko galdera: zer nintzan ni arentzako? Ezertxo bai? Ikasi bear nuen, nundik edo ala. Nere geiago izan nai artan, asi nintzan dantzan ikasi naiez. Ez an, arekin edo aren aurrean. Urruti baizik. Etorriko ziran erriko jaiak, eta, orduan, zalantza oiek ankapetuko nituen.

Bañan au etzen iñoiz gertatu...

Ia, egun batean, entzun nuen "nere" neskatxa ura beste batekin ateratzen zala. Ta, ez noski jostaketan. Nik, beintzat, gisa ontara artu nuen. Nere arrokeria lurtean ikusirik, ez naukan asmo txalogarririk burutan. Berrito biraguruztu giñerlarikan, agur ixil bat, beste aldera begiratuz; geiago ezer ez. Konturatu nintzan puskada bat arritua geratu zala; ni, nere kaskarru artan. Uste bainuen, itsuturik, ez naukala beste neskatxerik arkituko, aian begiko eukiko nunik. Zein mukur nabillan!

Beilaxe beste bat gustatzen zitzaidan, aurrekoa antzirik. Ta gero beste bat... Ori al zan maitasuna?

Gaur ezda atzo. Gaur siñestua daukat aukeria zala atzoko nere



negarra. Ez. Ez daukat oraindik gizonen ikusmirarik; atzo baño obeto ikusten dut bizia, ta bizitzaren larritasunak. Beste era batetik. Orren gain, parre eldu zait, atzoko siñsketa aietaz. Badira, noski, beste ezer asko, zertan burua erabili. Ogei urte arte, beintzat, eznuke nai, "maitasuna" deitzen diogun lar-tarte ortan sartu. Etorriko da garaia. Neskatxeren bearrean ez gerade arkituko, ziur. Gaur, oraindik, gatzetxo naiz.

A. E.



"Larreko", idazle, Sendakiña

Larreko'z ain ederki lengoan idatzi zuan S'k galde egiten zigun. 1. **Asko idatzi ote zuan**, 2. **Non arkitu leizken bere lanak**, 3. **Nork bildu lezazken**.

Aurrenekoari erantzunen diot 1925-tik 27-ra ZERUKO ARGIA'n amika sailtxo idatzi zituala. «Euskal-esnalea»n etzuan deus ere idatzi naski, 1911-tik 20-rañokoan ezer ezta ageri-ta. Napartarrean eztakit, baño erraz izanen da zerbaiz idatzi izatea, baita «Eskualduna»n ere, au berak beti artzen zuela nago-ta.

BERE IDAZKERA

Larreko bere idazkeran oso narbarmena da. Ematen du Liburu Santuak (Itun Zar-berriak) artu zituela bere ikaspidetako.

Bere gogamen oro edo guziak aien arabera ematen zituan. Gogamen neurtuak, itz gutxitan argi esanak.

Guzia Napar-euskalkian, Bortz-errietako edo-ta Uztama aldeko antzera. Ezta batere arritzekoa, Bera Bidasokoan Sendakin izanik.

SENDAKIN JAKINTSU LANAK

Larreko'k Zeruko Argian utzi zizkigun lan guziak Sendakin jakintsu bat azaltzen digute.

Bat ez beste guziak osasun gaiak egiñak dira. Lendabizikoan «Aire laxterra» (corriente) az mintzatzen da. Bere bearrak, noiz liteken kaltegarri. Sendakin jakintsekin aire laxter zale azaltzen zaigu, zein osasungarria dan adieraziz.

Urrengo saillean eskuen garbitasunaz ta esku zikiñaz itzegiten digu. Auen kalteak eta aien bearra, batez ere jan-edanakin ikustekoa duten garaietarako.

Iruigarrenean Uliaz. «Uli», euli edo elbiak, tokirik zikiñenetan sorturik, zenbat gaitzen sortzalle eta edazle diran. «Ba-gineki zer galbidetan ibiliazten gaituzten uliek!» dio.

1926'ko idaztietan, Sendakin jakintsu onek erlijiozko bi gai erakutsi zizkigun. Lendabizikoan siñis gorreak ez izaten erakusten digu.

«Ikusgarriak» izendatzen ditu mirari edo (milagro) tako artzen diran gertaerak. Ordea, Lourdes'en edo non-nai ikusten diran zenbaiz sendatzen uste etziranak, ez ditezkelako «ikusgarri» edo mirarritako artu nola-nai; alakotan sendakinak esan dezakela azken itza. Gauza beste bidez izan ditekkelako, ta orduan siñiskaitzagoen aurrean parragarri jarri ginezakela gure siñiste edo fede bera.

Erljiozko bigarren gaia, «Jesus'en zauria zzein aldetik?» «dakar. Geienean uste izan dan eta Sendakin zenbaitez ere uste zutena ezeztatzea dator Irigarai jaunna. Uste bait-du zauria etzela ezker saietsetik, baizik eskuin aldetik.

1926-go azken sallean Irigarai jaunak Ertze-maskullo edo apendicez itzegiten du, zer den, zenbateko arrixkua sortu lezaken eta zer egin.

1927-goan berriz ere osasunez idatzi zuan; Etena edo herniaz azkeneko sallean eta aurrekotan berriz egiazko mediku ta alegiazko medikuaz, argi ta garbi.

«Biak zerk bereixten? Batek ikastaro luzeak egin dituela, bertzeak ezer ez. Baño erasten du «Mediku on bat osotzeko ezta aski jakinduria, begi-golpe ona bear du, esku apaña, eta ukitzeko, zapatzeko eta indar egiteko bere beatzen jabe bear du beti «Mediku on bat nor den? Asko ikasi ta asko ikusia».

Esaera bizi batzuk ere ba ditu «ñor ezta ikasi gabe jakintsu». «Nornairen baitan, Jainkoaren doai bat siñistea, ez da zuurtzia», esaten du alegiazko medikuaz itzegiñez. Baita ere «Ainbat sendakin txar eta ainbat sasi-mediku geiago.

Ora bi itzetan Irigarai'tar Fermin, Iruñeko Eritegiko Buru izatea, Sendakin guzien txapelketaz irabazia zuen Sendakin jaun, gutxi bezalako onen berri zenbat.

INTZA'TAR DAMASO AN.

"Larreko" euskal idazle apaña

Larrekok euskera derabil buruan eta euskera dario lumara.

Naiz sendakin jakintzako gaiak izan, euskeraz, eta adikorraz ematen dizkigu bere erakusketak.

Artzen ditun gaiak, gaitzen iturrizkoak, gaitz beraren azalketa, aren agiriko ezaupideak eta orduko egin-bearrak, zein polleki. Eri aundi itzuli litekeneko, bere eriangandik ikasitako itz arrunta eta erritarrez edo bear bada berak asmatuaz, guzia garbi esaten zuan. Zerok ikusi dezakezute onako bere esan batzuetaz: **Eskuetaz itz egitean esaten digu:**

Ikasten ba-ginu, gure eskuetarik biltzen dugula gaitzen kutsua, gure gaitzak eta bertzenak askotan esku zikiñetan daudela.

Uliaz, berriz: **Ba-giñeki zer galbidetan ibiliazten gaituzten uliek. Ez da janari edo edaririk uliez ukitzen ez dutenik.**

Ez da edan edo jan-untzirik ek ukitzen ez dutenik... orgatik uliak dira iruzpalau gaitz zikiñen edazale ta kutsabide.

Sukar-ustela (tifus), berako urratzea edo disenteria; gora-berako gaitza edo kolera kanikulakoak. Gaitz oiek bedere emazkigun ulien gain.

Uste baño etsai andigoak ditugu uliak».

«Osasungarriko zerbeit» sallean dio: «Askotan gure gaitzak sabeleko miñez jotzen digute».

Sabeleko miña oñaze andi denean eta betbetan (batbatean) eldu denean, kontu.

«Sabeleko min andienak, ilgarrirenak oñaze anditen dute asiera:

eta oien gora-bera guzia ordu gutxitan dutela».

Orgatik olako oñazetan, zuen baitarik ezer ez egin eta sendakinari lenbailen deitu».

Beste gaitzarik ere ba-da sabeleko miñaren asiera dutenak: beazun arriak batzutan ematen dutena, giltzurin ondoko gernibidetik eldu diren legar-trabak eta olako».

«Nola nai den dela: sabeleko miñez eritzen dena eri-andi (grave) ditteke batzutan ta ez bestetan. Ori berexteko sendakiñentzat ere ez da beti gauza erraza: baño beti sendakinek egin bear duen lana».

ESAN BIZI TA GOGOANGARRIAK

«Mediku on bat osotzeko ez da aski jakinduria, begi-golpe ona bear du; esku apaña, eta ukitzeko, zapatzeko ta indar egiteko bere beatzen jabe bear du beti».

«Jakinduria ta begi zorrotza bear dire, mediku on bat izateko. Eta oriek ere ez dira aski baldin ura ezpada gaitz billazale ona».

«Mediku on bat inor den? Asko ikasi ta ta asko ikusia».

«ñor ez da ikasi gabe jakintsu».

«Gaitz guziak sendatzen dituen sortzekoa da orañik».

«Nornairen baitan, Jaungoikoaren doai bat siñistea, ez da zuurtzia».

«Sendakin geiago, ta alegiazko sendakin gutiago».

«Ainbat sendakin txar eta ainbat sasi-mediku geiago».

ITZ JAKINGARRI EGOKIAK

Azkuek bere iztegian bildu gabeko itz batzuek:

Giltz guziak erdoildu = endurecerse todas las junturas.

Lurgin edo nekazari.

Etiko-eri = tísico.

Begi iduki = kontu iduki.

Sukar-ustela = (tifus).

Berako urratzea = disenteria.

Ertze-itsu = apéndice.

Beazun-arriak = piedras de la vesícula.


Este-korapillo = extrangulación.

Gernubideko legarrak = arenillas del riñón.

Gora-berako gaitza = Cólera kanikulakoa.

Intzeuna = Humedad nasal.

LESAKA



LAXTER ITXASORA

Aurten neguak, gaur arte beintzat, ez digu agertu aserririk. Ez digu bota parrastan goitik kazkarabar erasorik. Etzaigu jetxi kale barrura elurraren txuriarik. Ez degu entzun tximixta ondoren trumoi orru dardarrarik.

Luzatzen asi zaigu eguna goiz alde t'arratsetik. Uda-Berria agertuko da alai eskintxu batetik. Ekarriko du berekiñ batian aukera edertasunetik. Jun zaitez, negu, bildurgarria, beste bat arte ixilldurik.

Oraintxe gure arrantzaliak daude eziñ egonien. Emango'ituzte pauso senduak kementsu itsaso bidian. Ikuste'itugu itsas aldera beriala atera naian. Argi dezala egun onetxek ona duten zorianian.

Jun zan urtien azkena ezkeroz egona ziran geldirik. Etzuten izan lana egiteko egokia zan lekurik. Etzion itsasuak eskeñi ere irabazteko biderik. Ibaiek berriz loi ta zikiña; etzun barruan besterik.

Jun zan urteko irabaziak ondotox daude agortuak. Irabazia eskasak ziran. ¡Atera, atera kontuak! Gaurko egunian biarra zaiote dirutan aundi muntuak. Ta au gabarik, zalantzik gabe, zaudete egiz galduak.

¡O zuen poza zenbatekua litzake arraia agertziakiñ Etziñakete minberatuko orrela ori gertatziakiñ. Sariak bete antxo ederrez zuen izerdiarekiñ.

Astien azkenian etxera danok biar dan irabaziakiñ.

Eska zaiozue zuen Aitari, on guztien Emallari, opa zaitzuela bere onespina, biar dezutena ugari. Itzik onenak ezpañetatik eskeñi gogoz Berari. Ez dezazute eman biderik gaizki itz egitari.

Berak lezake iriki ta itxi; era bat eman ta kendu. Ta Beregana garbi jotzeko noiz nai badezute ordu. Gauz zuzeneako biarra dago ta ez da beñere berandu. Itz abek ongi ikasi eta, azi on bezela zabaldu.

Ematen baizue zuen Jaungoikuak ona esku zabaliant, izan zaitzete baita zuek ere onak neurri berdiñian. Gizarte lanak mundu zabaliant daude laguntza eskian. Etzeate onak egiz izango egon ezker ezian.

Antxo kostera berri berri bat laxter astera baguaz. Oro gaitian zer nolakua urri ta erdizka gendun iaz. Ta ¿nolakua aurtengo auxe? Asmatutzen ez da erraz. Gu gure almen ta indar utsakiñ, ez gera ezertako kapaz.

¡O Zu Jaungoikua, zeru lur jabe, zuria da itsasua. Gizonarentat asieratik daukazu Zuk eratua. Bere uretan dauden arraiaz ainbatxo aberastua. Bota, gizonak zuen sariak, ta eman, Zuk Jauna, eskua.

JOAQUIN ALDAVE

OTXOBI TANPORRERO

Diego Etxeverría Arbazuarra izaten zen: obeki esan, Orokiatiko seme Arbazu'n bizi zena. Nekazari exkaxa. San Pedro ondoko soroa latz ikusi, eta prozesio'tan Otxobi'k beste letania bat sartzen omen zuen: «San Pedro ondoko goldarronak! Ora pro nobis».

Otxobi Ameriketara joan eta andik ere Diego'ren kontuak. Egun batez karta bat ala asten izan behar zuen:

«Gaur Santa Kruz Mayatzeko San Pedro ondoren zerbaiz izango da layatzeko...».

Diego ere koplari sartu eta bertsu auk bialdu zizkion:

Diego Etxeberria ta Grazia Barberia bertsoetan paratzeko ongi heldu dia...

Otxobi tanporrero berrizu hori zertan aipatzen ote huk nere soru hori!

Goldarron bat edo bi edukiagatik An biltzen diat nik arto eta gari.

Otxobi tanporrero berrizu hori

behin batean jarri zan emen ostalari;

Urtea bete zuen estu bezain larri, geroztikan onutza ez da berriz jarri.

Otxobi tanporrero lotsagabekua ereman duk atorra Merkaenekua.

Diego emen bizi duk bere baztarran, numero beintiocho kalle mayorrian.

SAGI

IKASI, MIKASI...

¡Gizonentzat bakarrik...!

—Beorrek esango do, zetaako deithu naun.
 —¿Zu al zera Mathalen'en senarra?
 —Bai, jaune.
 —¿Ramon izena duzuna?
 —Bai, jaune.
 —Ez uste, bada, zuri erristan egiteko asmoan nagoala; bakar bakarrik, adiskidirik bezala, elkar-izketa piske bat egin bear degu bion artian.
 —Asi beza, baa, nai dunin.
 —Zure emazteak dionez, zu bezin gizon onik ez dago munduan.
 —Nei ez dee olakoik esaten; baño, sei.
 —Oso txintxoia ta langillea omen zera, gañera...
 —Famili luze xamarra daukiu, ta ¡lan ein bear!
 —Baño, jenioz fuertea zeralako...
 —Dena gutxi da askotan.
 —Gizonak, zaldiak bezala, indarra bear du; baño zaldiari aokoa jarzen zaien bezala, gizonak, ere, bere buruari aokoa jarri bear dio...
 —Ekusteot noa doaien beorre. ¿Noizpin beñi, iges egiten ditela itz zakarron bat?
 —Ez noizpin bein: ¡maiz xamar!, birau ikaragarriak botatzen dituzula.
 —¡Beorre! nai nioke nik ikusi akulloakin, idi pare alperran atzetik!
 —Ni idien aurretik ibiltzen nitzan, mutikoa nitzela. Nere aite zena ibiltzen zen idien atzetik, goldeakin eta landarrarekin.
 —¿Ta, etzun maldizioik botatzen?
 —¡Arraioa!, ¡Karajo!, ¡Puñeta!, edo olakon bat, noski bai; baño ez naiz gogoratzen Jainkoan izen santua beñi ere zikindu zuenik.
 —Nee idik ez dute, baa, indarririk atezten olako itz leunekin.
 —Gaizki oituta izango dituzu eta...
 —Baditeke, baño...
 —¡Baietz, gizona; baietz! Abere guztiak aditzen dute edozein itzekin, noiz serio zerbait esaten zaien. Kontu polit batekin ikusiko dezu egi dela nik diotezuna.
 —Konta beza, baa, kontu oi.

—Ba'zen konbentu batean, katu beltz bat, oso lapurra. Sukalde arduradun Anai fraileak zerbait mañen gañean uzten bazuen, an zen katu zakar ura, ta ¡zas! eramaten zuan aragi edo arrainki pusketa. Baño, sukaldiña erne bai zegon, artzen zuan isatsa, ta ¡zapla! bialtzen zuan sukaldetik. Konbentu artako Aita Nagusia, naiz oso santua, piske bat txotxoloa zelako, beti erristan egiten zion sukaldiñ gizazajoari:

—"Anai —esaten zion—, ez jo katuari; katuak, ere, Jainkoak egiñak dire ta".

¿Ba'dakizu zer egin zuen orduan Anai sukaldiñak? Egun batzutat, bakarrik zegoala, itxitzen zuan sukaldiko ataria ta, isats bat eskuan artuta:

—"¡Jesus!" —esanda—, ¡zipli!, ¡zapla!, jotzen zion katu lapurrei. Amabots egunez ola eginda, esan zion Aita Nagusiari:

—"Aita, katu beltz onek deabrua izan bear du barnen: ezin bai dut ¡Jesus! esan bere aurrian..."

Bi fraileak ola izketan ari zirela, ara non agertzen den katu beltza.

—"Anai —esan zion Aita Nagusiak—, esan zazu orain ¡Jesus!"

Anaiak, isatsa artu gabe, baño bere indar guztiakin:

—"¡¡¡Jesus!!! ¡¡¡Jesus!!! ¡¡¡Jesusuuusss!!!"

Katu gaixoa, gero ta larriago, an zebillen poteka, mañen azpitik baztarrera, baztarrerik leiora...

—"Agirin dago —esan zuen Nagusiak—, deabrua daukela barnen katu onek. ¡¡l zazu, bada, bertan!"

Ta, bertan, katu motz arrek ordaindu zituen, larruakin, egindako lapurretak.

—¿Oi bera ein bearkoek nik nee idikin? Baño, idik iltzen bahot, ¿noekin landukothot nee lurrek?

—Akulloan txastakazoangatik ez dire ilko zure idiak, baño alperkeria kenduko diezu.

—Asiko naiz, baa, emendik aurrea, baño, oithura zarra baita, ¿uste do beorrek kendu albanezakela?

—Egun batez, aste batez ere, ez noski. Baño, denboraz...

—¿Nola?

—Beste kontu batekin, ikusiko dezu nola.

—Konta beza, beste kontu oi.

—Ba'zen gizon bat, zu bezala itz zakarrak esaten oituta zegoana. Konfesatzea joaten zen bakoitzean, apezaren errista adituta, esaten zion:

—"Jaune, naiko nuke nik oithura zakar ao kentzea, baño ¡ezin dot!"

—"¿Ezetz? —esan zion apezak—; nik erakutsiko dizut nola. Birau zakar bat botatzen duzunean, sar zazu sakelan arri koxkor bat. Gero, etxera etortzen zeranian, zenbatu arri koxkor oiek, eta, zenbat diren, beste ainbeste pezta eman Jainkoan-izenekoai".

Etzitzion añ zalla iruditu apezaren esana, ta asi zen agindutakoa betetzen. Lendabiziko egunean, etorri zen alorretik eskuñeko ta ezkerreko sakelak arri koxkorrez beteta. ¡Berrogei ta amartik gora...! Bigarren egunian, izango ziren berrogei ezka; irugarren egunian, ogei ta amar. Ta, amabots egun buru, ¡BAT ERE EZ!

—Besterik ez bada, gaurtik asiko naiz, birau bakotxen orde, peztaat Jainkoan-izenekoai ematen. ¿Uste do beorrek, kendu al nezakela oithura zakar au?

—Ez det dudarik ere:

¡¡¡PUNTU DELIKATUA BAI DA DIRUEN SAKELA!!!

Orain, emakume baten batek irakurri ba'du nik prestatu detan idazkaitxo au, penitentzi, konta dezala bere senar, seme edo anaiari, baldin birau zakarrak botatzeko oituta dagoan...

A. ASTIZ ARREGI

GOSEA TA OTZA



Irakurle: atera zaitez leiora. Begiratu nola dauden mendiak, lurak. Begira nola dauden zure erria. Estalki zuri baten azpian. Elur otzen ankapean. Zure aurrean txori bat dabill, otzez zigortua, gosiakin auldua. Ta zer?

Gu etxe barruan ondo gaude. Ogia badaukagu: su eder bat baita. Ez gerade konturatzen, baizik, ainbeste ta ainbeste gizon, emakume ta aur arkituko dirala munduan, txori orren antz, ezer jantzekorik gabe. Gosiakin aulduak.

Illargia. Ainbeste diru illargia eskuratu naiez. SAGI jaunak ondo esaten du «Principe de Viana» euskal errebista ontan: "Makurrena da txakurra ta katua bezela gabiltzala alkarren artean. Gerra ta zikiñkeri, beti burrukan otsoak bezela. Etzen obeto izango, besteren etxeko kontutan sartu baño len, lurreko naspillak zuzentzea? Illargi ortan jendeak bizi izan balira, zer esango zuten gure gauzak ikusi ta?".

Bai, SAGI. Bai, irakurle: zer esango luteke? Nainkoak baditugula gure etxeko egin-bearrak. Bañan gizonekin batean sortu zan munduan gaiztakeria. Alkar nor geiago naia. Orrengaitik gabiltz añ makur.

Gosea. Munduak gosea dauka. Amartik zortzi goseakin iltzen ari dirade. Ogien gosea. Kulturaren gosea. Egiaren gosea... Maitasun berotasunen gosea.

Bitartean ainbeste milloi dirutan Vietnamko gerra autsgarri ortan. Ainbeste milloi, alkarrerik bizi kentzeko. Edo... nik ezdakit zer dala ta, dirua lasai, aulkeri batean biurtua. Zuk eta nik. An eta emen. Atzo ta gaur. Gere anaien negarrak entzunaz, esaten degu zer egin leiken oien alde. Zer? Negar. Ez badegu ankapatutzen munduko gaiztakeria, negar, ez dugulako zuzen jokutzen. Ez geradelako gizonak.

Gosea beti gere artean euki degu. Betiko gaitza izandu da munduan. Bañan gaur diñ noski, iñoiz ez. Amartik zortzi anai, goseakin iltzen! Ez siñesgarri. Bañan egia dala erregu egin leike.

—Lanean jo dezatela!, esanen genuke guk. Gerrak

ukatzen dio, bañan, irauzpen bidea. Geienetan, bi aundien arteko asarreak ebasten dio jana ta bizitzeko esku-bidea. Gizonen lenda-lendabiziko esku-bidea ankapatua, zapaldua, larrutua. Zoritzarrek gizonak!!

Munduak gosea dauka! Orra or zuzentasunean ta zuzentasunerako egiña dan gure munduak zer dion: Ama, gosea dauka! Bañan ez. Apaiz ta Eleizaren gauzak izanen litzaken bezela, eskuak garbitutzen ditugu.

—Jauna. Aberats ta beartsuen Errege: Zuk esan zenigun: «eskatu ta eskuratuko dezute». Ona emen gaur, zure Zuzentasunari babeska. Begira nolakoak geraden. Begira, guk, gizonok, noraño jo degun. Alkar maitasuna agindu zenigun. Bañan, zergaitik nai izandu zenun gaiztakeri ta gorrotoak laketzea gure artean?

Aulak sortu giñan, ta aulak gerade. Ez degu ba, gere artean gertatzen dana besterik ikusten. Gure begiak artzen dutena besterik sinestu nai. Entzuten degu ainbeste iltzen ari dirala goseakin, or barna; ta len bezelatsu geratutzen da gere biotza. Gerra gordiñ-gordiña omen dabill, biziaren lorea moztutzen. Ta zer? Oi dana urruti dana guretik!

Ez. Ez degu begirik iriki nai. «Egoista» alu batzuek gerade, ta gerea besterik ez degu ikusten.

Gaur, baizik, Jauna, ona emen nere otoitz motza. Jun zaitez gosea daukaten oiekin gana. Esaiezu gure maitasunaren berotasuna aiekin dabillala. Ez gaudezila añ galduak.

Ixildu dezazu...; bañan, ez. Egin dezaten garrasi, entzun dezan munduak: Ama, OTZA dauka! Emuziazu jantzekoa. Ama, GOSEA dauka! Ama...

ANTTON

ESKVALERRIKO LEIOA

BITORIA (GASTEIZ EUSKERAZ)'KO EUSKAL AKADEMIAREN BILTZARRA

Gasteiz'en yoan berri den Otsailaren azken igandean Euskaltzaindiak bere ileroko biltzarra izan zuen.

Lenbizikoz Museo Probinzialean goizeko amaika t'erditan Euskaltzaindiak gai hauek ikustatu zituen:

«Ministerioerako informazioa, euskerari buruz».

«Arantzazu'ko lanak argitaratzea».

«Azkue» Iztegia» eta.

«Euskaltzaindiaren antolakizun berriak asieren berri ematea».

Euskeraren aldeko lan aundi hontan Euskaltzaindiari Elkarte hauek lagunduko diote:

Gipuzkoa'ko «Urkijo Seminario» delakoa eta Gipuzkoa'ko Diputazioarena dena.

Naparro'ko Diputazioaren «Euskeraren Aldeko Sailla», «PRINCIPE DE VIANA»-rena dena.

Bilbo'ko «Euskerazaleak» Elkarte.

«Euskalerriko Adiskideen Elkartasuna» Iruñeko.

«Real Sociedad Bascongada de Amigos del País» deitzen dena.

Bizkai'ko «Centros de Estudios Históricos» Elkargoa.

Alaba'ko «Sancho el Sabio» Elkarte.

Naparra eta Salamanca'ko Unibersidadeak.

Batzarre hau bukatuta denak Alaba'ko Diputazioaren Jauregiara jantzen Alaba'ko erriari begiratuz itzaldi labur hauek entzutera:

«Alaba'ko euskal giroa», euskeraz, Manuel Lekuona Apez jaunak esana.

«Pedro Barrutia», erderaz, Gabriel Aresti jaun mintzatuz.

Eta azkenean Aita Akesolo'k Jose Pablo Ulibarri' gaitzat arturik azken itzaldia bota zuen.

Egun hontan berean Euskal Akademiak erabaki hau artu zuen:

Naparroko Diputazioari eskerrak ematea eta bereziki Urmeneta Diputadu jaunari bere euskeraren aldeko lanarengatik.

LANZ ERRIKO IÑAUTEAK



Urte askotan bezala aurtengo Iñauteetan Lanz erriko karriketarik zear «Miel Otxin» izeneko gigantia ibilli dute lanztarrek. «Miel Otxin» irudia, beti bezala, «Ziripot», «Zaldiko», «Perratzaleak», eta «Txatxuak» lagundu zuten iru egunez eta azkenean erre go-go gaiztoak erritik uxatuaz.

ERRIZ - ERRI



BAZTAN

IKASTETXEA

Azkenengo urte hauetan Baztan'go Balleko Etxeak egin dituen gauzik baliosuenetako bat «Escuela Laboral» deitutako etxearen egitea izan da. Eskola huntan «ajuste y turno» deitzen diren lanak erakusten dituzte, hortarako erakustale onak badira aurrerapen hoietan trebe direnak eta aunitz dakitenak. Eskola hunek irugarren urtea du eta aurrerago irugarren kurso huntan 78 ikasle ari dira, gehien gehienak baztandarrek amalau urtetatik ogei urtetarañoko mutiko gazteak. Ikasketa hauek iru urte irauten dituzte eta dena bukatzen dituztenek «Titulo de oficiales» izeneko gradoa hartzen dute. Eskola hau Diputazioko babesean dago, laguntza osoa daukala. Mutikoak kontent dira eta badirudi ofizioa ongi ikasten ari direla.

Hemen bertze leku aunitzetan bezala yendeak bazuen arrankure eta beti marmaraka, Baztan'en deusez egiten etzela, hemen etzela bizia ateratzeko modurik eta holako, bainan ezta orrenbertzetañako, Baztan alde hau pixkaka pixkaka badoa aintzinat eta ezta arras gabea.

Beti ere Balleko agintariak baztandar herria zaindu dezatela, konbeni diren gauzak eginez beti negurritik atera gabe eta zuzentasun osoan eskualdun yendeari dagokion bezala.

BIDE BERRIAK

Baztan'en gauzak mantso bainan seguro. Beartzun eta Olabideko bide berrieri aurrerago udaran emanen diote akaballa eta hoietan ari zaizkigu lan eta lan, zola ongi apaintzen, bide bazterrek antolatzen eta dena behar den bezala paratzen. Urte oso bat egonak dira alfer bainan orai zola ongi pausatu eta gogortu denean, azken kolpea ematen ari zaizkigu.

Olabidetar ta Beartzundarrentzat aurrerapen zigarrira izanen da eta orai arat-unetak aisa eginik gauz aundiak egin dezaketek, bai berendako eta bai denen probetxuendako ere. Urrats bat gehiago aintzinat Baztan'go aurrerapenaren onerako.

Orai baseritarren artean autoak eta motoak izanen dute errekestek eta norbaitek bizikleta ere erosi behar omen du.

BERTSOLARIAK ELIZONDON

Erran bezala, yoan den iñaute egunen bertsolari besta eder bat izan ginuen Elizondon. Gehienetan Otsailla ilabete ergela izaten da eta aurretan ain xuxen egun hoietan behar zuten bere txarkeria agertu, orma eta elur aundiarekin bortizki zapatu gaituela. Aro txarrak menditar yendea beldurtu zuen eta egia erran ez ginuen entzule aunitzik ikusi Antxitoneko trinketeen. Alare eskaldun bertsozale multzu polita bildu zen hor ikusi gintuelarik, Baztango herrietako eskaldun zintzoak, Bertizarana eta Bidasokoak eta Gipuzko aldetik etorritako bertsozale jatorrak ere. Deneri gure eskerik beroenak eta yarraiki zazue zeren zaletasun eder hortan, eskuara maite duenak olaxe behar baitu bere burua agertu.

Festa hau Nafarroa'ko Diputazio-ko «Institución Príncipe de Viana» Batasunaren laguntzarekin egina da eta horari izanak dira, Xalbador, Mattin, Lasarte, Agirre eta hoien artean gure herritar Klemente ere Ordu bat eta iru laurden irauan zuen kantaldiak eta yendea gehiago ere egonen litzake, ongi dagon lekuan ezpaita aisa aspertzen. Bertsolariak erabili zituzten gaiak egokiak eta denen gogokoak ziren.

litzaria eta Nekazaría... Anaian arteko bizi moduak... Aita-semearen auziak... Senargai ta Andreagaien ixtorioak... Nagusi-Maisterrarenak eta gehiago ere. Gero elkarri puntua emanez ere aritu ziren eta erran beharrik eztago bertsolarien ateraldiekin yendea loriaturik egon zela. Gure koblarri maitagarriak sasoi ederrean zauden eta bozak ere ozen ozekak.

Mattin'en bertso alegerak beti ba-

dute gatz eta piper eta entzulek zer irri-karkailak egin ote zituzten aheztarraren bertso pikokariekin. Merexi du aipatzea Xalbador'en azken bertsoa. Hura bai bertso eder eta mamitsua!! Lasarte ta Agirre ere bertsolari maitagarriak ditugu eta yendearen gogokoak, hoien aitaldie ere goresgarri izan da.

Goan den iñaute igandeko bertsoak Baztan guzian entzunak izanen dira, han ikusi gintuen guttietatik amar «magnetofon» eta orai «maxina» hoiek hartutakoak bazter guzietara barreiatuko dira.

M. IZETA

URDIAIN

Lengo batean, Donosti'ra bidean nioala, Urdiain errira iritzi gifañean, an sartu ziran «Burundesa»n amalauzpamabost mutiko, dena irri ta barre, algara alaiean, itz-jario ta mutxikagura, liburuak edo karterak eskutan.

—Nora zoazte, mutikoak? — galde egin nien.

—Altsasu'ko Istitutura, eskolara — erantzun zidan orko amaika urteko begiurdin mardul batek.

Poz aundia ematen zun olako mutiko eder sailla eskolara bidean ikusteak. Baño oraindik poz aundiagoa eman zidan denak elkarrekin euskera garbian ari ziralako ikusteak. Uraxe bai edertasuna!

Nik nere baitan: Gero esango dute eskola ikasteko euskeraz egitea traba bat besterik ezta. Ona emen mutiko auek, euskaldun jator, ikasle trebe, erdalerriko beste edozein bezin trebeak, geiago ezpada. Izan ere, nun daude analfabetorik gutxiak España guzian? Euskalerrian ta Katalunian, bi izkuntz erabiltzen diran lurraldeetan alegia.

Euskal arazoan, Urdain erria eredu ta ikaspidetzat ar dezakegu dudik gabe, zaarrenetatik asi ta aurtzo txikienetaraño, denak euskeraz egiten baitute elkarrekin, bai etxean, bai elizan, baita kalean ere.

Nortasun aundiko jendea izaki nunbait, eta nortasun ori euskerak ematen die aundizki. Ezteute jotzen beren burua, erderaz egiten dutela ta, aundiputz, beste askok bezela. Bai-baitakite euskera Jaungoikoak berak emandako izkuntza dugula euskaldunok. Erdera ikasi, bai; geiago ta obe. Baño euskerari eutsi, euskera maitatu, zaindu eta landu, gurea delakotz.

Ez euskera kontuan bakarrik; beste arlo askotan ere espillu ta eredu dugu Urdiain'go erria.

Goazen gizarte edo erderaz «social» esaten dan girora ta ikusiko dugu: gorputz eta animaz jende sanoa, artu-emanetan zuzena, jokabide guzitan zintzoa, langillea, urkoari

laguntzeko beti «pronto» dagona. Eztut esango Urdiain'en pekatu-rik eztagola; baño aipatu ditugun bertute oiek, toki gutxitan bezela, urdintarren artean aratz eta jori ikusten ditugula, bai.

Ona emen proba batzuk:

Gizarte giro eder oni esker, eta buruzagiek bide zuzenetik eramaten jakin dutelakotz, egin dituzte urdintarrak egin dituztenak erriaren bizibideari buruz. Erriko lenbiziko ogibidea nekazalgora da, erri geienetan bezela. «Concentración parcelaria» delakoa sortu zaneko, egin zuten urdintarrak bere barruti edo dermian.

Erriko bigarren ogibidea industri bidea da, ta aspaldi-aspalditik izan ere: oraiño Nafarroan industriarik eztagola, urdintarrak Bizkaia'ko bidea arzten zuten, lurak ematen etzien dirua ango fabrika edo meatzgatik (minetatik) ekar zezaten. Ta Olazti'ko ta Altsasu'ko lantokiak eraiki ziralarik, an zuten urdintarrak lanbiderik egokiena. Eta (ziur-ziur badakit) oso estimatuak izandu dira beti, langilleak eta zintzoak diralako.

Azken urte autan berriz, errian bertan jaso dute ola edo fabrika eder bat, beljikatarrak buru direla ta urdintarrak langile. Diotenez, oso ondo omen dioa fabrika ori. Jarrai beza ortan.

Baño ez uste izan gauzak itsumutsuka edo nolana egin dituztela: oiñari ta zimendu sendoak jarri zitkioten bere lanari. Aurretik, erriko gazte guztiak elkar arturik, «Sociología» ta «Economía» ikastaldi edo Kurtsu batzuk egin zituzten, erakustailu bikañak gidari zituztela; ta serioski ta sakonki egin ere, konturatu baitira urdintarrak, edozein lanbideetan, eskuak eta anak baño areago, burua ibili bear dela ongi jantzi-rik.

Lana bear-bearrezkoa zaio gizonari bizitzeko; ainbat bearrezko atsedena ta dibersua. Ontan ere etzaizkigu makalak agertu urdintarrak. Or daude, mundu guziaren ikusgarri, mutillek beren izerdiz eta beren diruz egindako igeritegi edo piszina ederra; or fubolean aritzeko zelaia; or erri guziko ta etxe askoko berri- tze ta apaintzeak, eta aurren baratzta.

Eta eliza berotzeko berogailuak jartzen ari dira.

Eta pilota plaza berri bat egiteko asmotan dabilte.

Eta jaitoki edo saloi bat. Eta beti lanean geroari begira. Eta beti zintzo. Eta beti euskaldun. Urdiain bezelako gutxi.

Gora URDIAIN!!

I. A.

APOSTUAK

Yoan den igande Martxoaren 2'an, Azpeiti'ko plazan apostu eder bat yokatu dute. Oraingoan beñere ez bezalako yokoa agertu digute, aizkorian eta lasterka eta bidenazka ari izanak direla. Astibia aizkolaria eta Ayerbe korrikalaria alde bate- tik, eta Arriya aizkolaria Irazu lasterkariakin bertzetik. Beren eginkizuna auxe zen:

Sei egur moztu eta sei kilometro lasterka bikote bakotxarentzat eta lan guzia zeñek lasterrago egin. Lehenik aizkolaria onbor bat moztu eta gero bere lagun korrikalaria kilometro bat lasterka, eta gisa hortan bertze gañerako aizkora lanak eta lasterketak seigarren kilometroa akitu arte.

Sei egurretatik, iru 54 ontzako eta bertze iruek 60 koak ziren. Astibia'k egur guzietan bentaja puska bat ar- tzen zuen eta naiz Irazu Ayerbe baño korrikalari obeagokoa izan, Arriya'ren lagunak Ayerbe arrapatu or- duko, honek bere lana bukatua zu- ken eta orduan Astibia'k aizkorian berriro aintzinaldia artzen baizuen, azkenean Ayerbe'k seigarren kilo- metroa osotu zuen yokoaaren garai- pena erdietsirik. Astibia eta Ayerbe'k lan guzia 33'07 minutoz egin zuten eta Arriya ta Irazu'k 33'39 m. tan. Apostu ederra izan omen da eta yendea ere kontent omen zen. Apostua asi aintzin trabesak 100-30



Arriya ta Irazu'ren alde zauden bainan yokoa asi orduko bertze aldera itzulikatu ziren. Orai diote berriz ari beharrak direla bainan aringoan doble lanarekin, au da, 12 egun eta 12 kilometro.

Ikusiko dugu zer gertatzen den.

ANZANARRI



Jose Agerre jaun zena Iruñe'ko seme zintzo, euskaldun iaio, euskaltzale sutsu eta Euskal Akademiko (Euskaltzaina) on eta famatua izan zan. Euskeraren maitasuna txikitatik ongi sartua zaukan biotzean.

Beraren oroimenez bere euskal-izkribuetatik bat emen argitaratzen dugu gure aurrek atseginez leituko dutelakoan.

Juantto gure auzoko demoniyo txikia

Deabru tipizat daukagun zortzi urteko mutiko bat gure auzoan bizi da. Juantto, Errotako Juantto.

Errotako etxea gurearen aurrean dugu, sagastia dela bitarte. Oker eta gaixtoa dela Juantto orok erraten dute. Nik bañan ez dut uste txar-txarra denik. Beintzat ez dut ikusi txarkerik egiten.

Aste ontan ikusia ikusi-ta, mutil ontzat daukat Juantto au.

Orra zer den gertatu:

Erenegun azkar eurlitu zuen, bideak loi biurtu artio. Etxain aurrekoa ere bai. Biaramon, eguraldia eder gertatu zen; eguna, aldiz, txarra izan genun. Arrats-beheran baño askoz lehen ilundu zitzaigun eguna.

Lehen urtetako moduan, kabia aurten egina dute ere bai elaiak etxeko atartean.

Erenegun goizean, elaikume batek egaz egin zuen kabiatik ta etxaurreko sagar ondo baten adarrean kokatu zen.

Eguerdia-inguruan, jauts-ala asi zen euria ta an gelditu gizaxoa, busti-busti eginda. Juantto gure auzokoa. Errotaren atzeko errekan nola dagon, uhar egiten duteneko gisaz...

Arratsaldean, erauntsia gogorrigo izanik, elaikumettoa lurrera jauzi ta loitzan bete-betean aurkitu zen. Zagon einen egaz egiten usterik ere ez.

Juantto'k etxetik ikusi zuen nola jauzi zen eleikumea. Bereala, zaku bat jantzi buruan eta oñustu egin zen, oskiak ez loitzeko. Txorrittoa arin atzitu zuen eta lerren gabe.

Orren txartzat geunkan Juantto non eta uste beigenun, kalibearrez edo basakeriren bat egiteko, naiko zuenetz. Oldartu nintzation txoria ken-nahiz, bañan ideki ere ez nuen egin leioa.

Zer agitu zen ba? Juantto'k (auzokuok demonio tipizat daukagun Juantto ori) begiramen aundiz eskuetan arturik elaikumia, fereketan asi zitzaion polliki.

Arriturik gelditu nintzen. Juantto au mutiko txar ura dela diote, ala? Tarrapatan eldu zitzaigun etxera. Utsik geunkan kaiol zaharra anai txikiari eskatu zion.

Axolaz eta astiro, bien artean elaikumea xahutu zuten. Ari zireno, elaiama zebilkien inguruka, txio-txioz, batetik bestera. Bitartean, kidekoak kabian zeuden bildurtuta.

Garbitu ta kaiolara sarturik, auxen eskaratzeko sutondoan ipiñi zuten. Gure amak so-egiten zien irriñoiz.

Atzo goizekoa, egun senti bai ederra. Goiztarrik agertu zen eguzkia, ortzian laño-errestorik ere ez.

Eskolara baño len, Juantto gure baitara etorri zen elaikumea ikustera. Bezperan loiez beterik zegon elai-txita, ona orai, garbi ta sasoin, lumak idorrik.

Anai txikiak kaiola etxaurrea elki zuen. Ordukotz, lehen-egatsa zuten egina beste elaikumeez.

Elai-ama, kaiolakoan ohartu ta asi zen txioka, estu ta larri, inguruan inguruka.

Anai txikiak eskuetan zuen kaiola. Juantto'k kaiolaren alanbrezko atea zabaldurik, eskubiaz emeki ateratu zuen txio-txioka ari zen gaxo giltzatua. Musu emanik mokoan, gora botatu zuen airean.

Bi mutikoek ixil ta barrez agur egin zioten pipittoari.

Amak ere gogoz egin zigun barre ta nigartók zariotzan baita. Ondotik bieri ots egin zien eskaratzeko leiotik.

—Orra, eskolara-garaia baduzie ya. Laister ari ezba'zerate, berant izanen zaizie, leia zaizte ba. Arin bai arin joan ziren, bañan ez ziren eldu.

Maisuak samin artu ta olgaldi gabe utzi zituen.

(Jose Agerre zenak bizkaieratik artu eta Nafar- garaiko izkeraz jarrita).

BERTSULARIAK Elizondo'ko Trinketian (1)

EGIA LATZ ETA GARRATZA DA (TXILLARDEGI)

Otsailaren 16'an, igandearekin, Elizondo'ko trinketian izandu giñan, Iruña'ko «PRINCIPE DE VIANA» deitzen den batasunak eraturako bertsularien saioketa entzuten.

Lehen mallako lau bertsulari ziran bildu bearrak, eta nola aspaldian Gipuzkoa'ko alde ontan bertsulari oiek ixillik dauden, Elizondo'ra urbildu giñan Xalbador, Mattin, Lasarte eta Aguirre entzutera.

Mariano Izeta zuten gidari, eta lau bertsulariek, bertako Klemente izeneko beste bertsulari batekin, arratsalde goxo bat iraganazi ziguten.

EGI LATZ ETA GARRATZ BAT

Bai, trinketian ikusi gendun gertakizun garratz bat aitortu nai degu: Elizondo'ko trinketian, bertsulariak entzutera jaunak ziran gizon gazte zonbeit ¡¡ERDERAZ!! mintzo ziran gure inguruan.

1934'an Elizondo'ko trinkete ortan berian izandu giñan, erri ortan lehen aldikotz egiten zan bertsulari saioketa bat entzuten.

Gero Donostia'ko Victoria Eugenia antzoki edo teatruan egin bear zan azken saioketa bi edo iru bertsulari onenak autatu bear ziran Elizondo'ko saioketa artan.

Ondo goguan dugu, orduan, bai trinketian eta bai Elizondo'ko kalean EUSKARA UTSA mintzo zela.

Eta gaur 1969'an, orren denbora guti igaro ondoren, gaur bertsulariak entzutera jauiten diran berak ¡¡ERDERAZ!!... mintzo dira Elizondo'n.

GALDERA ZONBEIT

Gertakizun garratz ori, ez alda euskerak daramakin beerakadaren agiririk egokiena eta bide batez beldurgarriena...?

Orrela jarraituz, laixter, urte guti barru euskera euskaldunen ezpañetan galdua dela...?

Eta nor da, errudunik bada, nor da beerakada orren errudun...?



Erriko jaun apezak...? Ustez kultura duten erriko aundizki zonbeit...?

Naiz euskeraz jakin, euskera mespreziatuz, euren ezpañetan pranzesa edo española darabilkiten aundizki zonbeit...?

Edo, erran dezagun garbiki, edo euskera bera da atzerakada orren errudun, gurearteko artu-emanetarako gai ez delako...? Deusetarako serbitzen ez dualako...?

Naiko genduke jakin, nork... zer erantzun ematen dion galdera oieri.

BASERRITARRAK ETA EUSKARA

Mariano Izeta, gure adixkide onak erraiten zaukun ¡¡oraindik...!! baserrietan euskara mintzatzen zela.

Elizondo'n bezala, Euskalerriko baserri aunitzetan, ¡¡oraindik!! euskera mintzo dela uste dugu, gure ere.

Utzi dezagun beraz oraingoz, kalia edo karrika, bere arbasoengandik gizaldiz-gizaldi artu duten mintzaira mespreziatzen duten kaletarrentzat, gizon eta emazteki aundiki oientat, espáñolez edo pranzesa



mintzatuz euren burua aunditzen eta edertzen dutela uste duten kaleume oientzat.

Eta saia gaitezen, bederen gure baserrietan euskerak iraun dezan. Saia gaitezen euskeraren ¡¡AZKEN ATSAKI!! oraindik luzaro iraun dezaten.

Gure arbaso zarrak, dauden illobitilik... eskertuko gaituzte, eta ere jujatuko, jujamendurik zorrotzenarekin, karrikan euskera mespreziatzen duten kaletar oiek denak, izan ditzen apez... mediku... sekretario... euskeraz jakiniñ ere, mintzatu nai ez duten kaleume oiek denak.

BERTSULARIAK ETA EUSKARA

Bertze iñun baino obekiago, Elizondo'ko trinketian oartu giñan bertsulariak euskeraren alde egiten duten lan paregabeaz.

Elizondo ingurutako jende aunitz, baserritarrak geienak, bertsulariak entzutera etorri ziran. Elizondo bertatik guti, erran zigutenez.

Eta trinketian bildu ziran baserritar aiek, eta entzule denak, Xalbador'ek goxoki erranik, entzun zuten gure mintzaira bear zutela maita eta gorde.

Eta iñorreri entzutekotan, bertsulariari entzungo dio baserritarrak. Au baino maisu edo irakasle oiegorik ez bai-da beretzat.

XALBADORREN BERTSUA

Maitasunaren indarrak nau ni ekarri erri huntara, eskuararen maitasun hori deusi ez daike conpara. Ene anaia ta anai hurbila bai zira zu baztandarra, ikusi arte ta arte hortan ongi beiratu ESQUARA.

ZERGATIK BASERRITARRAK...?

Bainan edozeineri bururutzen zaion galdera au da: Zergatik baserritarrak gorde bear dute, kaletarrak mespreziatzen duten euskara...?

Kaletarrentzat on ez bada, zergatik bear du izan baserritarrentzat...?

Ona gure erantzuna: Kaletarrak euskaldun izaita, euskaldun nortasuna galdu dutelako.

Kaletarrak euskaldun izena ere merezi ez dutelako.

Kaletarrak euskera galdu eta mespreziatuz, gure arbasoen lotsagarri diralako.

Egitazko euskaldunak baserritarrak diralako: baserritarrak eta arrantzaliak. Ez da bertze arrazoinik.

Norbeitek erran lezake karrikan ere badirala euskaldun zintzuak.

Bai, ez degu ukatzen, ikastolaren alde... astekariaren alde... eta abar lan egiten dutenak.

Bainan guti, oso guti baserritarrak bezala euren ezpañetan, euren bizitarako euskera darabilkiten euskaldunak. OSO GUTI.

BEAR-BEARREZKO KONDIZIONE BAT

Bainan baserritarrak eta berdin arrantzaliak euskara gordetzia nai badugu, kondizione batekin izanen da, «sine qua non» erratan dan kondizionerekin:

Dr. Hernandorena jaunari arrapostua

Ez zait ez gogoko Dr. Hernandorena jaunari arrapostua ematea. Bi urte igaro dira antzerako hauzia izan giñuela Herria asterokoan. Euskera galdu ondoren euskal ohiturak berdin jarraitzen dutela; eta euskera gabe ere, euskal etniak berdintu jarraitzen duela; esan zuen bati eman nion arrapostuaren kontra sartu zan berau. Bi puntu hauek soilki garbi jartzea eskatu nion, ondoko zenbakietan paperik aski gastatu zuen Hernandorenak Herria'n, ikaragarriko nahasmenduak jarriaz, baina gaur da eguna bi puntu hoiaren erantzunaren zain natziona. Beraz, nola izango zaidan gogoko, baldin horaingo honetan ere bere arrapostuak bide hori hartuko balute?

Herri bezala, euskeraren alderako ditugun errazoiak, bizi geran artean eusten alegindu beharrak eta beste horrelako gauzetan ez naiz sartuko. Hauek, Euskeraren inguruan izeneko saiakera luze batean laister argitara emanak izango dituk eta.

Hemen, Dr. Hernandorena-ren pentsamendu frakasua bakarrik aditzera emango dut. Zeren pentsalari batek bere zereginean ongi bereiztu behar du elkargoen zeregina.

Berak esaten du Euskaltzaindia frakasu bat dela. Euskal Akademia hau sortu zenean oraindik mundu hontara etortzeke nongoan, baina badakit bere sortzaileen asmua ez zela munduko beste hizkuntz Akademiengandik apartekoa. Bere egitekoa, Akademia guziak bezala, hizkuntzaren linguistika ikerketak, bere moldeak zaintzea eta hortik gora, hizkuntzaren bizitarako, ahal duen guztia egin.

Baina, Dr. Hernandorena jaunak nahasmendu handi bat sortu du, zeren berak erantsi nahi dizkio Euskaltzaindiari egite politikoa. Euskera hizkuntza ofiziala ez izatek, euskera eskoletan ez erakustetik, eta euskera Euskal Herriari begira bere inguru duen kultura jakintza eskoletan ez erakustetik (bere balioa eta premia adieraziz), eta abar. Datorkigu hizkuntzaren gain-beheratasuna. Politiku egintzan oraindik Euskaltzaindiaren eritziak irabazterik izan ez duelako ezin geneza erua Akademiari bota. Akademiaren bete beharra ez da politika, baldin era guzietako politikoeri eta era guzietako agintariari euskeraren alderako eskariak eginarren.

Hernandorenak uste al du euskera Euskal Herrietan hizkuntza ofiziala ez izatea Euskaltzaindiak nahi duelako dela? Euskaltzaindiaren esku balego besterik izango zan. Ez ote?

Orain arte Eleizak egin duela hizkuntzaren alderako lanik gehien? Inork ez dugu ukatzen. Eta martxa berean ikusi nahi genituzke gainerakoak ere. Bakarrik, hor ere, azken urte hoiatan, Dr. Hernandorena jaunak ez daki Euskaltzaindiak zenbat egin duen apezpiku eta artzapez-pikueri eskariak egiten eta laguntza ematen. Oraindik gehiago esango dut: Euskaltzaindiaren gogoz, Eleizak berak ere orain arte egin duena baino gehiago egin beharra du euskeraren alde.

Bestalde, gaurkoz, Euskaltzaindia ez ote da bere biltzarrak, agiriak, har-emanak eta abar euskera utsean erabiltzen dituen elkarte bakarra? Neronek beintzat ez dut beste bat ezagutzen, ezta euskeraren alde agertzen diren elkargo kulturazko edo politikazkoen artean ere. Behar bada Hernandorena jaunak jakingo du euskeraren alde gehiago egiten duen elkargoren bat, guk ez jakinarren. Eta horrela bada, egon zeguru Euskaltzaindiak berak baino txalo gehiago merezi dituela.

Euskaldunik gehienak euskera bazterten dutelako alper-alperrik gabiltza euskeraren alderako lanetan? Badakizu hizkuntza gaxorik dagoala. Baina, gaxorik dagoanez, bizi baten bezala tratatzen dugu, eta ez hildakoa bezala. Bizirik dagoan artean komeni zaigu alegintzea. Zeren, hiltzen ez dan artean posible izango zaigu salbatzea.

«No sé el vasco ni... falta que me hace!». Esaten du-

Baserritarrak euren ERRIKO-ETXERA azaltzen diranian... euskeraz erantzungo dioten norbeit aurkituko dute.

Baserritarrak Bankura juaten diranian... euren kontuak euskeraz aztertuko duan langille bat billatuko dute.

Baserritarrak Veterinario edo Mediku bearran diranian... euskeraz dakian gizon bat izango da euren serbitzuko.

Baserritarrak Elizara inguratzen diranian... euskeraz mintzatuko zaio ten jaun apez bat aurkituko dute,

Meza Saindua eta bertze Elizkizunak euskeraz egingo duan apeza.

Kondizione oiek bete bear dira baserritarrak euskara gordetzia nai badugu.

Euskera ez da BASERRIKO LANETARAKO, euskara mundu zabalera, Euskalerriko mundu zabalera agertzeko da.

Kondizione oiek betetzen baditugu... orduan izango degu, baserritarri, euskera gorde dezaten eskatzeko eskubidea.

Kondizione oiek betetzen baditugu, baserritarrak ikusiko dute eus-

tenetakoak aintz ditugu. Baina Dr. Hernandorena jaunak ez al du uste formazioa gora-behera dala hori? Herria, herri xehea, herri arrunta, itxurazko prestijioaren alde jokatzan duena da, eta itxurazko prestijio hori, aspaldi danik erderak du gure herrietan eskoelen bidez sartua. Ofizialtasunaren itzalez, era berriko kulturaren itzalez. Itzal hoiak itzaltzen dutelarik gure jatorrizko kultura, herri beraren jatorrizko kultura. Eta, are gehiago, herria bera bere buruari gutxietsirik jartzen duena, konplejuz menperatua. Eta ez esan herri horrek goi-mailako jakintzak behar dituanik. Bere ogibidezko eta bizitza har-emanetarako euskera aski du, baina hala ere gutxietsitzen du. Gauza hauek sakonki estudiatzen ditu J. Alonso Montero katedratiku jakintsuak bere **Realismo y conciencia crítica en la literatura gallega** (Madrid, 1968). Bertan gailegu hizkuntzarekin gertatzen danaren adierazpena, berdin balio digu euskerarentzako.

Gehiago oraindik, Alonso Montero-k hain ederki jartzen dizkigu gizarte mailetan gertatzen dena, handi-maundizkoak ere hizkuntzaren balioak azalez besterik ez dituztela ikusten, eta herri arruntak bezala baztertu. Intelektuak, erdi-mailako askok, eta herriaren parte batek maitatzen dituela jatorrizko ohitura eta hizkuntza. Eta azken parte honetan estudiantek.

Gure fenomenu bera ez ote? Ikusi: 1968-garren urtean izan da gure historian lehenengoa estudiantek elkaturik udarako euskera ikastaroak egin dituztena. Orain arte, euskeraz ikasteari ekin dioten estudiantek, bakarka izan dira, baina orain lehendabiziko taldeka antolatutik. Eta, agiri danez, Dr. Hernandorena jaunak hortaz oso gutxi daki, nunbait etzaio berririk heldu, zeren udarako euskera ikastaroen kursillo hoiak Euskaltzaindiaren babespean egin ziren. Eta, Euskaltzaindiak asko ere asko sentitu zuen diruzko laguntzarik eman ezina, diruz oso hurri ibiltzen delako. Baina aurrerakoan hau ere bete beharrezkoa izango du, nunbaitetik nolabait aterata. Eta, Gabiriako bainu-etxe zaharrean igaz Madril-en estudiantek dauden Euskal Herriko semeak antolatuzten euskera ikastaroak aipatu ditugunez gero, ezin dugu ixilik gorde PRINCIPE DE VIANA dalako elkargo honek eman zuen diruzko laguntza, gauza aurrera eramatea posible egin zuena.

Baina eginkizun hoiak betetzea ez da arrotzekoa. Euskaltzaindiak hoiak ditu bere bete beharrak. Zoritxarrez ez du bere esku euskera eskola guzietan eta gainerako guztietan ofizial jarri ahal izatea.

Euskaldunak euskera gutxi-etsiz begiratzea, hau da, konplejuz begiratzea, edukazioaren gora-behera besterik ez da. Baina edukazio bideak estatuaren esku daudenez, politika bidezkoak dira. Beraz, Euskaltzaindiak frakasurik izatekotan, bere gogozko politikarik ez lortzearena izanen da. Hau da, politikaren frakasa eta ez Euskaltzaindiarena. Alde honetatik, Euskaltzaindiaren joera argi ta garbi dagoan gauza bait da. Begira, PRINCIPE DE VIANA aldizkariaren 36-gn. zenbaki beraren 2-garren orrialdean Euskaltzaindiaren joera, garbi asko.

Beraz, frakasurik, Dr. Hernandorena-ren pentsaerarena eta planteamenduerena izango da izatekotan ere. Zeren jakin behar luke euskaldunak euskera ez maitatzea, edukazio gora behera besterik ez dela. Eta edukazioak etxea bakarrik ez du aski, batez ere eskolako edukazioa etxeokoren kontra dagoanean.

Gogoan izan Campión bera Euskaltzaindiaren sortzaile eta lehenengo izendapeneko euskaltzaina zela eta nun ebilen ondo zekiela. Gauza hauek nola diren zekizianez, eta euskalduna bere mintzairaz gutxi-etsirik ikusiaz **Navarra en su vida histórica**-n esan zuen: «¡Oh vasco, eres semejante al indio vil que arroja lejos de sí una perla más preciosa que toda su tribu!».

Gure egitekoa, hori horrela izaten iraun ez dezan lan egitea da. Lan hau, kontzientziak jabetu geran guziona da, ez Euskaltzaindiarena bakarrik. Horrela ez ikustea, pentsamenaren frakasua da. Besterik ez.

JUAN SAN MARTIN

karak baduala oraino ospe eta itzal Euskalerrian.

Bainan baserritarrak euren etxian, Euskalerrian ¡¡ARROTZ...!! sentitzen diran bitartian, ez daukagu deusik eskatzeko eskubiderik.

¡Euskara, oraindiano bezala, zuzen-zuzen leiza zulora juango da...!

L. HERNANDORENA

(1) Elizondo'rengatik erratan duguna, berdin-berdin erran genezake Euskalerriko bertze erri aunitzengatik.